


ASKOTARIKOAK GARA, BERDINAK GARA**3. Bi eskuak**

Talde-kohesioa indartzeko, oso garrantzitsua da **taldekideek elkar ezagutzea**, haien interesak, beharrak eta sentimenduak zein diren jakitea. Horrek laguntzen du alderdi berdinak, ezberdinak eta bakoitzaren berezitasunak azaleraztzen eta taldearen aniztasuna baloratzen, nork bere identitatea eta taldearena eraikitzen lagunduko dien taldekide izateko sentimendua izan dezaten.

Jarduera hau egin baino lehen, komeni da  ariketa egitea giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUA

- Ikaskideek ondo egoteko zer behar duten jakitea.
- Ikaskideak gaizki sentiarazten dituzten egoerak identifikatzea.
- Txanda errespetatzea.

GARAPENA

Egiten hasi baino lehen, irakasleak azalduko du zertarako egiten den eta zer lortu nahi den, eta errespetuzko giro batean egingo dela guztion iritziak —gustuak eta sentipenak errespetatuta, eta pertsona guztiek askatasuna izan behar dutela beren beharrei buruz hitz egiteko.

Galderak banatuko zaizkie ikasleei erantzunak bakarka emateko.

Azpimarratuko zaie komeni dela jokabideak oso zehatzak izatea (adibidez, “ondo tratatzea” ez litzateke zehatza izango; horren ordez, honelako erantzunak izan daitezke: “jolasetan onartzea, egia esatea...”) eta baita norberak bizi izandakoak ere.

Ondoren, **bakarka**, beren eskuen silueta marraztuko dute folio banatan eta bertan idatziko dituzte galdera horien erantzunak: ezkerrekoan 1. eta 3. galderen erantzunak eta eskuinekoan 2. eta 4. galderen erantzunak.

Ikasleek gelako horma batean itsatsiko dituzte ezkerreko eskuak eta beste horma batean eskuineko eskuak.

Helburua da agerian uztea zer behar dugun ondo egoteko. Askotarikoak gara, baina gauza berdintsuak behar ditugu ondo egoteko.

Bukaeran, irakasleak ikasle guztien “Nork bere ezaugarriak” orriak jasoko ditu, ondorengo jardueran erabiltzeko. Ikasleen ekarpenak “Jokabideak” izeneko eranskinean islatuko ditu. Hurrengo saiora arte hormak horrela geratuko dira.

Talde handian, kontuan izanik helburua zela zer behar dugun ondo egoteko partekatzea eta agerian uztea askotarikoak garelako eta gauza berdintsuak behar ditugula, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:

- Zer egin dugu ondo?



NI ETA NIRE TALDEA

- Zer hobeto behar dugu?
Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraziko die.

DENBORA

Saio bat

BALIABIDEAK

- Eranskina: “Nork bere ezaugarriak”